

Transkripzioa: **HEGO KOREA**

HOTS GOZO GOZO BAT ENTZUTEN DA, KOREATIK DATORRENA. (AHAPETIK KANTATZEN DU, ABESTIAREN DOINUA) ARIRANG IZENENKO ABESTIA DA, ABESTI HORI, BAI IPAR ETA BAITA HEGO KOREAN ERE OSO EZAGUNA DA, ETA GUK ABANIKO BATZUEKIN DANTZA EDER BAT IKASIKO DUGU. ABANIKO HORIEK, GERORREK EGIN DITZAKEGU NOSKI. NAHI AHAL DITUZUE ZUEK ERE, EGIN ETA DANTZA HAU PROBATU? JARRAI DITZAGUN ERRITMO GOZO HORIEK, ETA GOAZEN KOREARA.

KOREAKO ARIRANG ABESTIAREKIN DANTZA EGITEKO, KOLORETAKO ABANIKOAK ERABILIKO DITUGU. ABANIKO HAUEK, KOLORETAKO PAPERREKIN EGIN DITZAKEGU, EDO ZEUK APAINDUTAKO PAPER TXURIEKIN. BI ORRI BATUZ ABANIKO HAUEK LORTUKO DITUGU. IKUSI DEZAKEZUEN BEZELA, ALDE BATERA ETA BESTERA AKORDEOI BEZELA TOLESTUTA LORTUKO DITUGU. HORRETARAKO ORRIA HORRELAXE HARTU, ETA ALDE BATERA TOLESTUKO DUGU, KONTU HANDIZ ETA SAIATUZ, ESKINA BAT ETA BESTEA ELKARTU DAITEZELA. LEHENGOA EGINDAKOAN, ORRIARI BUELTA EMAN, ETA BESTE ALDERA TOLESTUKO DUGU. ETA HORRELA ORRIAREN BUKAERARA IRITSI ARTE. PAZIENTZIA ETA GOXOTASUNA BEHARREZKOAK IZANGO DIRA, BAINA ONDOREN EMAITZA ZORAGARRIA IZANGO DA. ETA ZENBAT ETA KOLORE GEHIAGO, ARE ETA HOBETO. ARE ETA POLITAGO, GURE DANTZA LORTZEKO. TOLESDURA HAUEK, ESTUAK EGITEN SAIATUKO GARA, HORRELA, GURE ABANIKOAK ITXURA EDERRAGO IZANGO BAIT DU. GUTXI FALTA ZAIGU. BAT GEHIAGO ALDE BATERA, ETA BESTE BAT BESTE ALDERA. ORRI GUZTIA TOLESTUTAKOAN, ONDO ESTUTUKO DUGU, ETA BATEKO, IXKINA BAT ETA BESTEARENA ELKARTU, GURE ABANIKOA ITXI, ETA AZPIAN ZELOREN BAT, EDO HORRELAKO ZERBAIT JARRIKO DIOGU. BEHEALDEA ONDO ESTUTUTA DUGUNEAN, GURE ABANIKOA IREKI, ETA KOLORE BIZI ETA ZORAGARRIKO ABANIKO PAREA IZANGO DUGU, GURE DANTZA EGITEKO. PREST? ZUEN ABANIKOAK EGITEKO? ZIUR, EDERRAK EGITEN DITUZUELA. ANIMO.

ARIRANG DANTZA HONETAN ESAN BEZELA, KOLORETAKO ABANIKOAK ERABILIKO DITUGU, JARRAI ITZAZUE NIRE JARRAI BIDEAK:

GORA (ESKUIN ESKUA), GORA (EZKER ESKUA). ORTZADARRA (BESOAK ALDA BATETIK BESTERA MUGITUZ)

BUELTA BAT (ABANIKOAK BATA BIZKARREAN ETA BESTEA BULARREAN DUELA), AGURRA. GORA (BI ESKUAK BATERA), BEHERA (BI ESKUAK BATERA), GORA ETA BEHERA BERRIZ ERE. ORTZADARRA.

GELAKO KIDE GUZTIEN ARTEAN BOROBIL HANDI BAT EGINGO DUGU, GURE ABANIKOAN ERDIAN JARRITA DITUGULA, ORTZADAR EDERRA OSATUZ, BAITA GOIAN ERE. ETA HASIERAKO GAUZA BERA EGINGO DUGU:

BAT GORA (ESKUIN ESKUA), BESTEA GORA (EZKER ESKUA). ORTZADARRA (BESOAK ALDA BATETIK BESTERA MUGITUZ)

BAT AURREAN BESTEA ATZEAN, BUELTA (ABANIKOAK BATA BIZKARREAN ETA BESTEA BULARREAN DUELA), ETA AGURTU. GORA (BI ESKUAK BATERA), BEHERA (BI ESKUAK BATERA), GORA ETA BEHERA BERRIZ ERE. ORTZADARRA. BOROBIL HANDIAN (BOROBIL HANDIAN GELAKIDEEKIN ORTZADARRA OSATU (BUELTAK EMATEN)) GOIAN ERE BAI. ETA AGURTU.

EGIN DEZAGUN ORAIN ZUEKIN ERE.

(DANTZA EGITEN HASTEN DA)

AGURRA. GORA, GORA. ORTZADARRA. BUELTA BAT. GORA BIAK. BEHERA BIAK (X2).

Transkripzioa: **HEGO KOREA**

ORTZADARRA. ERDIAN BUELTAKA.

GORA, GORA. ORTZADARRA. BUELTA BAT. GORA BIAK. BEHERA BIAK (X2). ORTZADARRA.
ERDIAN BUELTAKA. AGURRA